

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2023ko abenduak 1 - 1292 zenbakia

EUSKARAK

EGUN



Administratze
Tasua
Categorizatu

ADMINISTRAZIOA


- ✓ Aurrekontua
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Jabeen batzarretan izatea
- ✓ Aktak egitea

KUDEAKETA

- ✓ Obrak
- ✓ Lizentziak eta laguntzak
 - Eusko Jaurlaritzak
 - Udala

LEGE AHOLKULARITZA

- ✓ Jabetza horizontala
- ✓ Ezordainutako enplegatuaren errekamazioa
- ✓ Sormen berriko komunitateen erakuntza



Zure eskura jarri den dugu zure komunitateari dagokion informazio guztia urteko egun guztietako 24 ordutan

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

30 URTEK GORAGOKO ESPERIENZIAK BERMATZEN GAITU

943 200 358 - www.eukicomunidades.com - ARRETA PERTSONALIZATUA ETA TELEFONOZ: 09-14:00 eta 15:30-19:30



osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com



**P. Echeverria
A. Esnaola**

Hortz klinika - Clinica dental
Fernin Cabeton 19-3. esk. E-BAR
943 20 72 37 - 660 432 806
● Objektiv

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 843-702898

arat.
HORTZ KLINIKA - CLINICA DENTAL

**ZURE
IRRIBARRE
ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 831
www.aratklinika.com



EIBAR - HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
SPL 10/18

San Agustin Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com



Unzaga Plaza

Hortz Klinika - Clinica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

Fisioterapeutak



ANE MENDIA

779 Kalegata etxea

- FISIOTERAPIA
- KIBOIA, LERDIAK
- Tratamenduak TRATAMENDUAK
- A-terapiak + SUPLEMENTUAK

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ARRAQUETA, 20
T.L.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia



bista eder
clinica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es



IRAZABAL
clinica dental

**Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTLAK**

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tlnoa, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

*Dra. Laura
Martinez*



*Dr. Alejandro
Recas*

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Plazara Dantzara zapatuan egingo da aurten, San Andres jaietako erromeria lehen egiten zen bezala. 30 urte dira lehenengo aldiz egin zela eta saio berezia izango da Kezkakoentzat. Gainera, Euskararen Egunaren bezpera izango da, eta ezin ukatu Kezka eta euskarak duten lotura.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Greba Feministarekin bat eginez

Atzoko egunerako Euskal Herrian bestelako zaintza eredu bat behar dugula aldarrikatzera deitutako Greba Feminista Orokorrearekin bat egin zuen ...eta kitto!-ko lantaldeak. Hori dela-eta, eskuartean duzun alean azaroaren 30ean Eibarren jasotako irudi eta informazioarekin osatutako bi orrialdeak aurrez onartutako zerbitzu minimoen esparruan kokatzen dira, eguneko berriak jasotzeari uko ezin geniola egin erabaki ondoren. Horrez gain, atzokoan web orria elikatu ez genuenez, normalean eguen arratsaldean PDF formatuan jasotzen duzuen astekaria ere gaur arte ezingo zenuten deskargatu.

Bestalde, datorren astearen “akueduktoak” horretara behartuta, ez dugu alerik kaleratuko barixaku horretan; hori bai, web orrian ahaleginduko gara, gaurkotasunari jarraituz, egun horietako berrien jarraipena egiten. Hurrengo alea, beraz, abenduaren 15ekoa izango da.

Erredakzioa

Hortik esanak



Ez da egia orain jarri dela erdigunean adostasuna. Aspalditik da delitu adostasunik gabeko sexua. Harremana izateko borondate eza nola menperatzen duen erasotzaileak, hor dago gakoetariko bat, baina oraingoan badirudi zigor kodeko kontrola haratago jarri dela: ez da soilik baimena, ez eta borondatea. Baimentzen duguna deseatu eta deseaten duguna baimentzeaz gain, garbi eta gogotsu adierazteko obligazioa jarri zaigu, parean duzun horrek zalantzarik gabe uler dezan. “Bai da bai” horrek emakumearengan jarriko du sexu-onaren zama eta ase; eta hainbat feminista ospetsuk gogorarazten digute lehenago edo beranduago emakumeon aurka etor daitezkeela halako formulazioak. Ez da zaila asmatzen guzti honi buruzko epaiketa batean zein izan daitekeen epaitua.

NEKANE SAN MIGUEL, abokatua

Bilboko industrializazioa niretzat bikoitza izan zen: Iberiar penintsulako lurralde txiroetatik etorritako migrazioa eta hustuak izan diren lurralde horietan izan den estraktibismoa, zer eta argindarra sortzeko Bilboko industriaren indar erraldoiarentzat. Hori Bilboko bankaren, industriaren eta Euskal Herriko ingeniariaren artean gertatu da; hortik Iberdrola eta bestelakoak.

IBON ARANBERRI, artista

ONUren arabera iaz 86 kazetari hil zituzten munduan. Azken hilabeteen 40 bakarrik Gazan. Zertarako bidali kazetariak bertara, Jerusalem bertan informazio-agentzia handiena badago? Israelgo exerzitoa bera! Egunerok argitzen digute guztia: ospital, eskoletako pupitre eta ONUko bulegoen azpian etsaia dago, babesteko eskubidea erabili behar dute harrapatzen dituzten lurretan, lapurtutako euren etxeetako lurak babestera behartzen dituzte kolonoak, min kolateralak eragitera derrigortuta daude palestinarrak batzuetan ihes egin eta bestetan geratu egiten direlako... eta umeak, ez badituzte akabatzen, gero terrorista bihurtu daitezke. Euren bibliak horrela dixit.

KOLDO CAMPOS, zutabegilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ORRUAZ → Orruaka. “Han ebizen, orruaz, euren ustietan ondo kantatzen ebelakuan”.

ORSAIXAN → Futboleko berba, baina askotan distraiduta, erdi tontotuta, dagoenagatik esaten da. “Hi, zetan habil baiña?! Órsaixan hago betiko moruan”.

1968

Euskarazko kantuen lehiaketa

Plazaolaren argazki honetan euskarazko kantuen lehen lehiaketan parte hartu zutenetako batzuk ageri dira. Eibarren egon zen Radio Juventud-ek antolatzen zituen horrelakoak, eta euskarazko lehen lehiaketa 1968ko ekainaren 25ean izan zen.



Farmaziak

BARIXAKUA 1 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)	ZAPATUA 9 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ZAPATUA 2 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)	DOMEKA 10 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 3 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)	ASTELEHENA 11 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ASTELEHENA 4 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)	MARTITZENA 12 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 5 EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)	EGUAZTENA 13 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUAZTENA 6 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)	EGUENA 14 EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUENA 7 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)	BARIXAKUA 15 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 8 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)	GAUEZ BETI, 2023an, Castaño (J. Etxeberria, 7)

Hildakoak

- Manuel Pinto Pinto. 78 urte. 2023-11-23.
- Jacinto Etxeberria Jainaga. 83 urte. 2023-11-24.
- Andoni Andrade Olabe. 61 urte. 2023-11-24.
- Juan Luis Saiz Murillo. 84 urte. 2023-11-25.
- Unax Garcia Legaristi. 15 urte. 2023-11-25.
- Juan Luis Docampo Martinez. 65 urte. 2023-11-26.

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

A30

Zaindu gaitezen!

Zaintza sistema publiko-komunitarioa aldarrikatu zen gure kaleetan atzoko egunean. Deitutako greba feminista orokorra egun berezia izan zen, guztioi behintzat zaintzaren inguruan hausnartzeko balioko diguna. Ea gure jarrerak aldatzeko gauza garen! Argazkiak: Ekhi Belar.





Sanjuanetan txosnak kokatzeko bi proposamen egin dizkiote Udalari

Txaltona Zelaiko harmailetan egiten ari diren lanen ondorioz, iaz jakinarazi zieten sanjuanetako txosnaguneko antolatzaileei aurrerantzean ezin izango dela txosnarik bertan jarri, azpian komunak egingo dituztelako, eta lurrak “ez baitu txosnak eta jendeak sortzen duen karga aguantatzen”. Hori jakinda, ahalik eta azkarren hasi dira txosnagune berrirako proposamenak lantzen, eta bi aukera desberdin jasotzen dituen dokumentua erregistratu dute Udalean, lehen pauso gisa “alkatezta, Kultura eta jaietako zinegotziari zuzenduta, haiekin batera gaia landu ahal izateko”. Txosnaguneko

ordezkarien berbetan, “aurrez ere izan ditugu arazoak, Udalak txosnagunea lekuz aldatzera behartu gaituen guztietan proposamen berriak egin ditugu, eta ez da inoiz erraza izan txosnagune duin bat lortzea”. Azken urteotan bezala, Txaltona Zelaiko zabalguneari eutsi nahi diote, eta uste dute “gai garrantzitsua dela. Badakigu proposatu dugun tokietako batean barrakak egoten direla, baina alternatibak ere eman ditugu. Urtarrilerako arte barraken inguruko kontratua ez dela ixten ere jakin dugu. Horregatik, arazoa konponduta egon arte kontraturik ez ixteko eskatu diogu Udalari”.

Gaske Safako Urratsak elkarbizitzarako proiektu berria abiatu dute

Eibarko gaske musulmanen eskutik, gaur 17:00etan egitasmoa eza gutzera emateko ekitaldia hasiko da Untzagan. Kulturartekotasuna sustatzeko asmoz, hainbat jarduerara prestatu dituzte: gastronomia postuak, musika, berbalagun eta dastaketa txokoak...



Gabonetako Bigarren Eskuko Azoka antolatu dute abenduaren 16rako

Udalak antolatuta, Erreal Plazak Gabonetako Bigarren Eskuko Azoka hartuko du abenduaren 16an. Aurreko edizioetan bezala, gauzak saltzeko bi aukera daude: norberak zuzenean saltzeko postua erreserbatu daiteke edo, bestela, saldu nahi diren gauzak gordailu-zerbitzuan laga daitezke (10 gehienez), antolatzaileak saltzeaz arduratzeko. Bata zein bestea aukeratu, derrigorrezkoa da aurretik erreserba egitea eta adin nagusikoa izatea, 943670249 telefonora deituz edo www.merkabi.eus/eibar helbidean dagoen formularioa betez. Izena emateko azken eguna abenduaren 13a izango da. Azokaz gain, haurrentzako bi tailer eskainiko dira, Gabonetako apaingarriak sortzeko material birziklatuekin. Tailerretako bat 3 eta 6 urteko umeentzat da, eta bestea 7 urtetik gorakoentzat. Plazak mugatuak direnez, bost txanda egongo dira aukeran, 11:30etik 13:30era arte eta txanda Errebalen bertan erreserbatuko da azoka-egunean bertan.





Hasi da herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko Gabonetako kanpaina

Martitzenean hasi zen Gabonetarako Eibarko Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekia Elkar-
teak (ECCA) antolatutako kan-
paina, argiak piztearekin batera.
Hasiera ekitaldia Errebal Plazan
egin zuten eta, besteak beste, hau-
rendako musika saioa eskaini eta

txokolatea banatu zuten. Aurten-
go kanpainak 110.000 euro bai-
no gehiagoko aurrekontua du,
eta beste batzuetan bezala, ka-
leak apaintzeko argiekin batera,
Astelenako Haur Parkea, Errebal
Plazako izotz-pista eta barrakak
egongo dira.



Jendetza bildu zuen 1983an jaiotakoek jaiak

Zapatuan egin zuten bazkaria aurten 40 urte bete edo beteko dituzten
eibartarrek eta, argazkian ikusten den bezala, talde handia, 165 lagun
inguru elkartu ziren eguna elkarrekin, jai giroan pasatzeko.



Txistorra Egunak arrakasta handia izan du aurten ere

Eibarko Txirrindulari Elkartearen eskutik ospatu zen Txistorra Egu-
na zapatuan eta, beste behin ere,
ekitaldiak jende ugari batzea lor-
tu zuen. Elkartetik eskerrak eman
nahi dizkiete bertaratu ziren guz-
tiei, Eibarko Udalar, Oberena
harategiari eta gainerako enpre-
sa guztiei “euren laguntzarik gabe
ezinezkoa izango litzatekeelako
ekitaldi hau antolatzea”. Zozke-
tako sariak, bestalde, abenduaren
11tik 15era jaso ahal izango dira,
elkartearen egoitzan, (Pagaegi, 3),
19:00-20:00 bitartean. Zerbaki
sariak elkartearen webgunean
ikus daitezke.

KIA Naia Car-en zapatuko zozketako saridunak

KIA Naia Car kontzesionarioak
Eibarko Txirrindulari Elkar-
teak antolatzen duen 2023 Txistorra
Egunaren babesle gisa zapatuan
Untzagan egin zuen zozketaren ira-
bazleak hauek dira: Alex Kortabe-
rria, Nerea Areitio, Javier Cuetara,
Jose Luis Arrillaga, Ainhoa Cordon,
Aintzane Garai eta Guadalupe Lar-
rinaga. Bakoitzak Eibar Merka-
taritza Gune Irekiaren 50 euroko
Oparitu Eibar txartel bana jasoko
du. Abenduaren 4tik aurrera jarri-
ko dira harremanetan irabazleekin,
telefonoz, txartelak nola eta noiz
jaso azaltzeko.

AZOKA EGUNA

San Andres egunak Zeledon ere gonbidatu zuen oraingoan gurera eta guardasola (euritakoa deitzea egokiago) protagonista bihurtu zuen atzokoan. Hala ere, genero bikaina ikusi ahal izan zen postu guztietan, nekazal giroan sortutako produktuen erakusgarri; animalientzat ez zen hain egun alai izan, eta batzuk protesta egitera ere ausartu ziren. Datorren urtean gehiago! Argazkiak: Ekhi Belar.



Ez da egun bateko kontua



Hori adierazi nahi du aurtentzen Euskararen Eguna ospatzeko Eibarko euskalgintza-taldeak aukeratu duen goiburua: Eibarren 365 egun Euskaraz. “Orain dela urte batzuk erabili genuen goiburua ezagun hori berreskuratu dugu aurtengo Euskararen Egunerako; oso esanguratsua da, ondo adierazten du Euskararen Eguna ez dela egun bateko kontua, urte osokoa baizik”, diote antolatzaileek.

Aurtengo Euskararen Eguna, abenduak 3, domeka da eta eguerdi parteak hartuko du eguneko ekintza nagusia. “Goiburua ardatz hartuta, panel handi batzuk egin ditugu, zazpi guztira. Horietako bakoitzean goiburuaren zenbaki eta letra bat azaltzen da, zuriz, eta herritarrek egin behar duguna da hizki horiek kolorez bete, gometsak erabilia”. Pare bat orduko ekintza aurreikusuten dute antolatzaileek, “eguraldi ona eginez gero, harmailetan jarriko ditugu panelak, 12:00etatik 14:00etara, eta bertan egongo diren arduradunek banatuko dituzte pegatinak. Eurria egingo balu, beste aldean egongo den karpan egingo dugu, 12:30etik 14:00etara”. Musika Eskolako soinu-joleek girotuko dute ekintza.

Goiburua Txaltxa Zelain ikusgai

Behin panel guztiak osatuta, eguerdiko 14:00etan jaso eta Txaltxa



Orain dela 9 urte erabilitako goiburua berreskuratuko da aurtentzen.

Zelaira eramango dira: “Euskaltzaleok elkarrekin egindako lana, zentzu guztietan hain esanguratsua dena, ikusgai egotea garrantzitsua iruditzen zaigu, eta astebetetz-edo bertan egongo da”. Eibarko euskalgintzaren mahaia osatzen duten taldeak asteak daramatzate domekako eguna prestatzen eta argi zuten “zeozer parte-hartzailea antolatu nahi genuela, badakigulako, esperientziatik ikasita, Eibarko euskaltzaleok oso ondo erantzuten dutela horrelakoetan”. Aurtentzen ere gauza bera gertatuko delakoan daude eta “dei egiten diegu Eibarko euskaltzale guztioi, etor daitezela domekan Untzagara, denon artean osatu dezagun goiburua, ozen aldarrikatzeko Eibarren euskaraz bizi nahi dugula, baina ez domekan

bakarrik, urte osoan baizik, 365 egunetan”.

Euskararen hamabostaldia

Euskararen Eguna domekan ospatu arren, aurreko egun eta asteetan ere ospatu da moduren batean. Izan ere, Euskararen Eguna egun bakarrera mugatu beharrean, hamabost egunetara luzatu da: “Helburua ez da izan ekintza gehiago antolatzea, jada data horietan antolatuta zeuden ekintzetan euskarari presentzia ematea baizik, horrela eragile ezberdinek euskararen erabilera era kontziente batean egin zezaten”, dio Ane Albisu Akebaiko arduradunak. Bestetik, antolatu diren ekintza berrien artean dago Gaitu Maratoia, hurrengo orrian azalduta duzuen.

Batu ditzagun eibartarron ahotsak inteligentzia artifizialak euskaraz ikas dezan

Egungo teknologiak testuzko eta ahozko datu masa erraldoiak eskatzen ditu, eta, euskararen presentzia eremu digitalean bermatzeko, Gaitu izeneko kanpaina abiatu zen urrian, makinei eta teknologia berriei euskara irakasteko.

Erronka berri baten aurrean gaude euskaldunok: makinek gure hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten, lehenik irakatsi egin behar zaio. XXI. mendean sartuta gaude honezkerok eta euskarak ezin du museoko hizkuntza bat izan, teknologiarako ere prestatua dagoen hizkuntza izan behar du.

“Batu ditzagun gure ahotsak” lelopean, abenduaren 3a bitartean hainbat herritan egingo dira esaldi grabaketa maratoiak, baita Eibarren ere.

Eibarren 12.500 esaldi grabatzeko erronka

Eibartarron kasuan, erronka bi egunetan 12.500 esaldi grabatzea da eta Akebairen guardasolpean antolatutako ekimen honetan hainbat eragilek hartuko dute parte.

Ordenagailuak eta kaskoak ipiniko dira herritarren esku eta argibideak eta laguntza ematen euskalgintzako hainbat lagun arituko dira. Norberaren eskuko telefonoa erabilia ere oso erraza da grabaketak egin eta parte hartzea, eta horretarako aukera eta laguntza ere eskainiko da.

Erronkaren betetze maila neurtzeko liburutxo bat egongo da egun bietan, herritarren izena, adina eta grabatutako esaldi kopurua jasotzeko.

Parte hartu nahi dutenak edozein momentutan hurbildu daitezke ondorengo leku eta ordutegian:

Gaur (hilak 1), 18:00etatik 21:00etara Errebalen eta bihar, abenduaren 2an, 11:00etatik 14:00etara Untzagan (harmailen aldean).

Edozein arrazoi dela eta egun horietan parte hartzeko aukerarik ez duenak edota bere kabuz egitea nahiago duenak QRan topatu ditzake jarraibideak.

**GAITU: AHOTS-GRABAKETA
MARATOIA EIBARREN**



Eibarren **12.500 esaldi** grabatu nahi ditugu.
Erronkaren parte izan nahi?



**Parte hartu nahi
dutenak edozein
momentutan
hurbildu daitezke
barixaku
arratsaldean Errebal
Plazara eta zapatu
goizean Untzagara**



“Oso txarto pasatu dut diskoa egiten, baina irten denean harro sentitu naiz, indartuta”

DAVID KARBA • Kvalvika



Norberaren barrena egindako bidaia latza da KVK, Kvalvikaren disko berria eta azkena, honekin emango baitio amaiera David Karbak orain dela zazpi urte hasi zuen proiektuari. Europa iparraldeko herrialdeetara bidaiatzeko aukera eman zigun hasieran Kvalvikak, eta gizakiaren tormentuetan barrena eramaten gaitu orain.

Elkarrizketa osoa



Legarreko lokaleko bozgorailuen bolumena ia goraino igo eta, biniloak bakarrik eman dezakeen benetako soinuarekin, Karbarekin batera KVK osorik entzuteko aukera izan dugu. Musikak berehala murgiltzen gaitu bere unibertsoan, eta musikariak bizi izandakoa imajinatzen laguntzen du, zulo beltzetik hasita argia ikusi arte. Zintzotasunetik bihotzera heltzen den lana da Kvalvikaren azkena.

(Lehen abestia entzuten dugu) Zer esan dezakezu horri buruz?

‘Orain ni naiz’ du izenburu eta haustura fase bat deskribatzen du. Orain dela denbora bat, musika banda batetik irten nintzen nahiko modu tragikoan, horrela esan badaiteke, eta lagunak galdu nituen bidean. Aro txarra pasa nuen eta horri buruz musika egiten hasi nintzen. Frustrazio hori doinuen bitartez islatu dut. **(Bigarren abestiaren txanda) Eraserhead du izenburua. Zer dio?**

Lagun bat galtzeaz eta berriz ikusteko gai ez izateaz egiten du berba. Zauriaren fasea deskribatzen du. **(Hirugarren abestia jarri dugu) Tonua aldatzen doa hemen.**

Autokritikaren fasea lantzen dut hemen. Nik neuk ere akatsak egin nituela ohartu nintzelako. Hau da, hemen ez dago errudunik. Komunikazio prozesu erreala da, nor bere kasa jardun du, eta abesti honetan nik neuk ere ederra egin dudala onartzen dut, gero hurrengo pausoa eman ahal izateko.

(Laugarren abestia orain) Zer azaltzen duzu abesti honetan?

Sendabidearen fasea, aurrera egite hori. Lehen abestietan azaltzen dena onartu eta buelta ematea. Denok bizi izan ditugu hausturak. Hasieran izorratuta gaude, baina gero egoerak beste dimentsio batzuk hartzen ditu. Horrela, abestian, sasoi txar horretan WhatsApp bitartez lagun bati bidali nizkion ahoko mezu batzuk sartu ditut.

Barrenak atera dituzu diskoan.

Horrela tokatu da. Beti gustatu izan zait disko kontzeptualak egitea. Lehenengoan, Islandia eta Norvegiara bidaia islatu nuen, dena oso polita. Bigarrenean, gizarte hiperkomunikatuaz jardun nuen. Hirugarrenean, remixak egin nituen. Eta oraingoa neure buruaz berba egitea tokatu da.

Nola sentitu zara zeure burua modu horretan biluzten? Askotan, musika egiten duzunean, buruan ez duzu



Kvalvikaren azken diskoa biniloan kaleratzea ametsa izan da David Karbarentzat. EKHIBELAR

diskoa ateratzea, ez dakizu egiten duzun horrek argia ikusiko duen. Baina abesti batzuk eginda nituen eta gai horretaz berba egin nahi nuela erabaki nuen. Gainera, diskoaren sorrera-prozesua arraroa izan da. Diskoa egingo nuela nekiela, pare bat kontzertu eskaini nituen eta txarto eman nituen, ez nengoelako ondo. Oso urduri nengoen. Ez nituen gozatu, eta munduan gehien gustatzen zaidana musika egitea eta kontzertuetara joatea da. Terapia bezala erabiltzen nuen horrek, disko hau egiteak, are gehiago izorratzen zidala konturatu nintzen. Bertigoak, antsietatea... Eta gelditzea erabaki nuen. Zorionez, azkenean diskoa atera dut lagun askoren babesari esker eta diskoa entzun dezaket, lehen nintzelako erantzuteko kapaz.

Zenbat denbora iraun zuen eten horrek?

Maiatzean amaitu genuen diskoaren ekoizpena eta orain irten da. Ez nuen ezer jakin nahi. Orain, biniloa ikusten eta entzuten dut, eta egin dudana oso harro nago. Gainera, diskoa orain ez da nirea, argia ikusi du, jendeak entzun du eta disko bat da bere horretan. Entzuleek ulertzen badute, moduren batean lagundu ahal die. Batzuk balkoitik botatzen dira, nik diskoa

egin dut. Muturreko adibidea da, baina batzuek fase gogorak pasatzen dituzte eta ez dituzte gaintitzen. Neure kasuan, antsietatea eta bertigoak jasan arren, zerbait egiten jarraitu nuen, hortaz egiten nuen berba, artea egin nuen horrekin, eta garrantzitsua iruditzen zait. Egia esan, nire disko gustokoenetako askok gai hau lantzen dute. Pertsona batek bizi duen infernua islatzen dute, baina diskoa egiteko gai izan dira putzu sakonenean egonda ere. Beraz, gustatzen zaizkidan disko gehienak depresiboak badira, zergatik ez dut nik horrela egingo? Eta horrela egin nuen. Momentuan gogorra da, baina egiten duzu. Oso txarto pasatu dut diskoa egiten, baina irten denean harro sentitu naiz, indartuta.

Poz handia sentitu duzu?

Ez dakit poz handia den berba. Biniloa ikustea bai izan da poz handia. Oraindik ere, biniloa esku artean hartzen dut eta ez dut sinesten. Niretzat beti izan da ametsa biniloa editatzea. Lehen bi diskoak CD-an kaleratu nituen, zoramena zelako biniloan argitaratzea, demaseko inbertsioa eskatzen zuen, baina orain laguntza jaso dut.

30 urte eibartarrak plazara dantzara ateratzen

Bideoa ikusgai



30 urte dira Plazara Dantzara lehenengoz egin zela eta, orduan bezala, aurten ere zapatuan egingo da Kezka dantza taldearen eskutik urtero ospatzen den San Andres jaietako erromeria. 1993ko azaroaren 27an, zapatua, izan zen lehen aldia, eta orduan ere Jainaga eta Narbaiza izan zituzten musikari, lehen hartan Elgoibarko Udalaren txistulariekin batera. Elgoibarko Haritz eta Debako Gure-Kai dantza taldeetako dantzariak ere etorri ziren, Eibarko dantzariekin batera Untzaga plaza dantzan jartzera. Eta asmo horrekin irtengo dira bihar ere Untzaga plazara, 12:30ean.

San Andres azokarekin batera, jaietako ekitaldirik arrakastatsuen izaten da Plazara Dantzara erromeria, eta parte-hartzea ere benetan zabala izaten da gaur egun. Hala ere, Kezka dantza taldeko Oier Araolazak horrela gogoratzen ditu hastapenak: “Gaur egun horrelako gauzak nahiko normal ikusten ditugu, baina orain dela 30 urte dantza taldeok ez geunden jendea dantzan jartzeari begira, guk dantzan egin eta ikuskizunak emateari begira baino. Aldaketa handiena hortik etorri zen”.

Urrutitik datorren aldaketa izan zen, gainera: “Belgikako talde bat eta dantza maisu batzuk Euskal Herrian egon ziren 80ko hamarkadan, eta haiek balioan jartzen zuten herritarrek dantzan egitea. Euskararekin paralelismoa egiteko, askotan esaten dut dantza gorputz hizkuntza bat dela, euskara berbazko hizkuntza bat den bezala. Eta euskara sustatzeko, bultzat-



tzeko, interesantea da idazle onak egotea, baina lehentasuna da herritarrak euskaraz aritzea, herritarrek euskara bere egitea, eta euskaratik euskaraz aritzea. Eta dantzan ideia berdina litzateke, interesantea da herritarrek dantza bere egitea eta herritarrek dantzatzea. Ze oso ezberdina da zerbait ikustea, konsumitzea, edo norberak egitea”.

Eta ideia hori abiapuntutzat hartuta ekin zioten lanari: “Gu 1992-93an hasi ginen Elgoibarko Haritz dantza taldearekin elkarlanean, haiek lan egiteko zuten modua ezagutzen, eta haien bidez etorri zitzaigun beste ikuspegi aldaketa hau. Hori da 1993ko Sanandresetan martxan jarri zena. Berez, aurreko urtean Elgoibarren eta Deban eginda zeukaten, neguko festetan, Gabon Zahar ferian Elgoibarren eta Soro ferian, eta guri Sanandresetan

egitea proposatu ziguten”. Horrela sortu zen Plazara Dantzara.

Gertuen zegoen zapatuan

Bestalde, azken urteotan beti San Andres egunean ospatu bada ere, ez zen hala izaten lehen urteetan: “Elgoibarren eta Deban jaiak zapatuta lotuta daude, eta guk ere larunbaterako eredia erabili genuen. San Andresetik gertuen dagoen zapatuan hasi ginen egiten, eta hala jarraitu genuen 15 bat urtetan, 30era aldatu genuen arte”.

Ekitaldi berezia izaten dela kontatu digu Araolazak: “Guretzat oso giro goxua da, oso ekitaldi atsegina delako. Ez daukagu presiorik, gozatzera goaz. Eta jendea ere horrela dator. Festa egun bat da, gu baserriar janzten gara, eta janzte horrek zerbait berezia ematen dizu, beste modu batera bizitzen dira gauzak”.

>>> "Badira 25 urte lehen ikastaroak antolatu genituela eta gaur egun ere helduen bost talde ditugu"

Ez da hori erromeria honek daukan berezitasun bakarra. Izan ere, asko zain egoten dira, bestela egiten ez dituzten euskal dantzak praktikan ipintzeko: “Urteetan ari gara plazako dantzak herritar guztien-

EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA
Udal Euskaltegiak, Publikoak, irakik, guztiontzat.

EUSKARA, bidaia harrigarria

#euskarharrigarria



2023 - 2024
MATRIKULA
espea zabalik
Plaza de Instituciones, 10

Abenduaren 21a arte
MATRIKULA ZABALIK
urtarrilean hasteko

MAILA GUZTIETAKO
euskara ikastaroak
Euskaltegira etorrita
zein etxetik
Autoikaskuntza, tutoretza eta mintzasaioekin

Azterketa prestakuntza
HABEko titulu ofizialak

TARIFA BEREZIAK
16 - 18 urtekoek, C1, 20€

GALDETU
Tfnoa: 943700912 Whatsapp: 688 698 566
euskaltegia@eibar.eus



Bista Eder, 10
PORTALEA





Zuri-beltzean dauden bi argazkiak Eibarren egin zen lehen Plazara Dantzara erromeriakoak dira, 1993ko azaroaren 27koak. Harrezkero dantza-ekitaldiak ez du aldaketarik izan formatuari dagokionez (JOSE VALDERREY). Aldamenean, lehen urtetik parte hartu duen Oier Araolaza, Kezka dantza taldeko kidea

gana zabaltzeko lan egiten. Izango dira 25 urte lehen ikastaroak antolatzen hasi ginela, ...eta kitto! eta Kezka dantza taldea elkarrekin, Fernando Muniozguerenek berak akuilatuta”. Bere burua dantzari-tzat ez dutenei oinarrizko pauso batzuk irakatsi eta, horrela, jaietan-eta dantzatu ahal izatea zen helburua, eta begibistakoa da urteetako lan horrek bere fruituak eman dituela: “Urte hauetan jende pila bat pasatu da horrelako ikastaroetatik eta gaur egun ere helduen bost talde ditugu, oinarrizko euskal dantzak ikasten. Horrelako jendea ere hurbiltzen da ekitaldira, eta hori guretzat gozagarria da”.

Aurten ere urterokoa egingo dutela aurreratu digu Araolazak: “Guk Sanandresak Plazara Dantzara ekitaldiaren eszenatoki natural bezela ulertzen ditugu, eta aurten ere horrela arituko gara. Dantza eskolako eta helduen taldeetako

>>> Lehen urtean bezala, Elgoibarko Haritz eta Debako Gure-Kai taldeko dantzariak arituko dira bihar, Kezka taldekoekin batera

ikasleak horretarako prestatzen ari dira eta, beti bezala, plaza eta atearak irekita dauzkagu animatzen diren guztiak gurekin dantzara batzeko. Aurten, zapatua izaterakoan, Elgoibarko eta Debako dantza taldeetako hainbat lagun ere hurbilduko da. Gainera, eurentzat ere urterren polita da. Eta, agian, Ermuko Txindurritik ere koadrila txiki bat animatuko da”.



Euskararen Egunarekin bat

Bestalde, dantza-ekimena Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan ospatuko denez, bat egiteko aukera izango dute dantzariak: “Uste dut euskal dantzaren eta Kezka dantza taldearen ibilbidea ezin dela ulertu euskalgintzarekin izan duen loturarik gabe. Euskal kultura euskal dantzatik, baina baita euskaratik ere, ulertzen dugu. Orduan, guretzat oso polita da Euskararen Egunarekin bat egitea. Adimen artifizialari begira, euskarazko ahotsak batzeko, grabatzeko deialdia egin dute bihar goizerako, eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu parte hartzera. Euskarazko ahotsak jasotzeko aukera izango da Untzagan, 11:00etatik aurrera eta, erromeria hasten denean, ekimen hori jubilatuen egoitzara pasatuko da, zaratak trabarik ez egiteko”. Dantzan eta euskaraz, ezin sanoago!



58. DURANGOKO AZOKA
2023ko abenduaren 6tik 10era



IBAIZABAL

IBAIZABAL

IBAIZABAL

Errealitate bihurtu den fantasia



Badator 58. Durangoko Azoka

ABENDUAREN 6TIK 10ERA BITARTEAN IZANGO DA, 'FANTASIA DA!' LELOAREKIN

Euskal kulturaren egutegian ezinbesteko hitzordua den Durangoko Azokak abenduaren 6tik 10era bitartean izango ditu atek zabalik aurten.

Fantasia DA! leloarekin dator, Nerea Mujika Gerediagako geroak esplikatu duen moduan: "Fantasia da sortzaile berrien ilusioa, liburuen usaina, diskoen kolorea, kulturazaleen irribarra, boluntarioen lana, aspaldi ikusi gabeko lagunekin topatzea, sormen bakoitzaren istorioan dagoen magia, jende alaiaren barbaroa, bizigogoa, kulturaren beroa".

Dagoeneko 58 urte igaro dira azokaren hasierako bultzatzaileen amets hartatik, "fantasia hura errealitate bihurtu zen eta gaur egun euskal kulturaren egutegian ezinbesteko hitzordua dugu".

Mujikak gaineratutakoaren arabera, "Euskal kulturari bultzada emateko asmoz, Durangoko Azoka jendetsu eta aberatsa izatea, horixe da gure fantasia".

Mundu propioa sortu

Fantasia horren irudi eta isla, Ximon Agirre artistak sortutako kartelak ilustratuko du azoka, hiru dimentsioko irudi sakona baliatuz, errealitate birtualean landua. Kolore alai eta saturatuekin, Durangoko Azokaren festa izaera bistaratzeko helburua izan du. "Kartelaren ideia nagusia mundu propio bat sortzea izan da, azokaren elementuak (liburuak, musika, bideogintza, teknologia berriak...) pertsonaia fantastikoenkin uztartuz", esplikatu du Agirrekerak.



Bisitari ugari izan zen iazko Durangoko Azokan. DURANGOKO AZOKA

Ikasle Goiza

Azokak abenduaren 6an atek zabaldu ondotik, hurrengo egunean, abenduaren 7an ikastetxeetako eta aisialdi taldeetako gazteei zuzendutako tailer, hitzaldi eta ikuskizunen egitaraua izango da, bestela esanda, Ikasle Goiza izango da.

Egun horretan Ikasle Goiza izan arren, azoka nahi duen guztiarentzat zabalik izango da 10:30etik 20:00ak bitartean.

Aurrez aurrekoaren alde

Osterantzean, aurten, Durangoko Azokak aurrez aurreko formatuaren erabateko apustua egin du, 2020an, pandemiak eragindako egoerak behartuta, abian jarri zuten online azoka ereduaren leihoa itxiz.

Antolatzaileek esandakoaren arabera, iaz, azoka presentziala indartu zuten, eta, erabiltzaileek

ere aukera hori lehenetsi zuten. "Hori dela eta, aurten aurrez aurreko azokaren aldeko apustu osoa egingo dugu. Online ereduaren leihoa itxiko dugu. Hala ere, pertsona guztiz bota barik; izan ere, etorkizunean horren premia egonez gero, egoerara egokitzeko adierazgarria", esplikatu zuen Beñat Gaztelurrutia Gerediaga elkartearen koordinatzaileak.

Hurrengo astean zabalkundea

Horrekin batera, Gerediaga elkartearen ordezkariak gogora ekarri

"Aurten, aurrez aurreko azokaren aldeko apustu osoa egingo dute, online ereduaren leihoa itxiz"



Aurtengo Durangoko Azokaren aurkezpena. DURANGOKO AZOKA

dute Durango Azokaren osteko astean, *Zu non, han DA!* ekimenaren bitartez, Euskal Herri osorako zabalkundeari jarraipena emango zaiola.

Zu non, han DA! ekimenari esker, Durangoko Azokako nobedadeak eskuragarri egongo dira Euskal Herriko hainbat liburu dendatan. Horietako zenbaitetan, gainera, liburu aurkezpen bereziak antolatuko dituzte.

Zortzi gune ditu azokak

Azokaren ezaugarriari dagokionez, berriz, 1990etik liburu eta diskoen azokara, kulturaren diziplina ezberdinak ordezkatzuz, gune bereziak lotzen joan zaizkio eta gaur gaurkoz, zortzi gunetan banatuta dago azoka: Saguganbara, Aho-tsenea, Irudienea, Szenatokia, Areto Nagusia, Kabia, Plateruena eta Azoka TB.

Lankidetzarako topaketak

Bestalde, Durangoko Azokaren bueltan, baina azoka zabaldu baino lehenago, sortzaileei eta programatzaileei zuzendutako *DA! PRO* aurrez aurreko bi topaketa egingo dira azaroaren amaieran, aurten bosgarren urtez.

Ekimen horren helburua da euskaraz jarduten duten sortzaileen eta programatzaileen arteko lankidetzaz sustatzea.

Hori horrela, *DA! PRO* topaketan, sortzaileek euren lanak erakutsi

Kabia, Saguganbara, Aho-tsenea, Irudienea, Szenatokia, Areto Nagusia, Plateruena eta Azoka TB dira guneak

ahalko dituzte sektoreko programatzaileen, kultur teknikarien, liburutegietako dinamizatzaileen eta bestelako profesionalen aurrean.

Horretarako, batetik, familia ikuskizunen aurkezpen laburrak egingo dituzte, Durangoko Bizenta Mogel bibliotekan, azaroaren 28an, goizez. Bibliotekaren beraren eta Berbaro euskara elkartearen laguntzarekin egingo dira aurkezpenok..

Bestetik, musikarien txanda azaroaren 29an izango da. Musika Bulegoarekin batera antolatutako ekimenean, urtean zehar Euskal Herriko kultur aretoetan ekintzak prestatzen dituzten programatzaileek bertatik bertara ezagutuko dituzte sortzaileen lanak. Plateruena kultur aterpean izango da topaketa hori, 09:00etatik 14:00etara.



Amorante. JON GARATE

Elgoibartik Durangora sorkuntza lan oparoa

Oparoa izan da aurten ere Elgoibarko sortzaileen uzta, bereziki literaturan, eta lan gehienak Durangon izango dira salgai. Hala ere, azokak bere eskaparate propioa izango du Elgoibarren ere.

Saiakeran estreinatu da Jasone Osoro, eta *Arrakasta* izeneko liburua eman du argitara, Elkar argitaletxearekin. *Arrakasta* lortu duten hamaika laguni egindako elkarrizketak, bere oroitzapen eta esperientzia propioak eta zenbait autoreren aipu eta esanak bilduta osatu du liburua.

Uxue Alberdi, bestalde, bi lan berriekin dator: *Belarriko kilkerra* eta *Surflaria*. Bizitzaren eta heriotzaren urek bat egiten duten istorioa da *Surflaria*, eta Susana Martin komikilariarekin batera argitaratu du (*Ikastolen elkarte*). *Belarriko kilkerra*, bestalde, narritiba liburua da (*Elkar*). Ahoz kontatu eta belarritz jasotako testuak dira liburukoak, eta ahozkotasuna, memoria, transmisioa eta giza

kondizioaren oinarriak biltzen dituzte. Begoña Durrutyk ilustratu du liburua. Horrez gain, taldean sortutako beste lan batean ere hartu du parte Alberdik, eta talde horretan egon da baita ere Daniele Sarriugarte elgoibartarra. *Zirriborroak* eta *gero* idatzi dute hamar lagunen artean. Etorkizuneari pentsatzeak ziurgabetasuna kudeatzen laguntzen du, eta, ildo horretan, etorkizunaren dekalogo bat proposatzen digu liburu honek.

Olaia Irigoien ere idazle paperean estreinatu da 2023an. *Inesa Gaxen* ipuin ilustratua argitaratu du, Adapta argitaletxe kataluniarrekin. 6-8 urte bitarteko umeentzako ipuina da, eta Inesa Gaxenen bizitza kontatzen du. XVI. mendean jaio zen Nafarroa Beherean, eta

sorgintzat hartu zuten. Epaitua eta torturatua izan zen, baina hala ere, ez zuen inoiz sorgina zela onartu.

Musikari dagokionez, Iban Urizar Amorante izango da Elgoibarko ordezkaria Durangon. *Harri, Herri, Har* diskoa kaleratu du Amorantek, Forbbiden Colours argitaletxearekin. Hiru zutaberen gainean eraiki du diskoa, (*Harri, herri, har*) herri musikaren orube malgua oinarri duela. Kanpaiak, malenkonía, festa, animaliak eta poesia ageri dira. Hainbat musikari izan ditu Amorantek bidelagun: Felix Buff eta Hasier Oleaga bateria jotzaileak, Hatxeren pianoa, Xabier Zeberioaren hariak, Los Sara Fontan bikoaren fantasia eta Amaia Mirandaren gitarra, besteak beste.

Durangoko Azoka, Pitzintxun Duragon ez ezik, Euskal Herriko herrietako dendak ere izaten dira Durangoko Azokaren eskaparate, eta sormen lan batzuk herrietako liburu dendetan aurkeztzen dituzte, *Durangoko Azokak* izeneko egitasmoaren barruan. Elgoibarko Pitzintxu opari dendak ere hartuko du parte ekimenean, eta Goiatz Labandibar (*Oiartzun*, 1985) idazleak bere azken lana aurkeztuko du bertan: *Bekatua*. Biharamun emozional baten kontakizuna da. Ezezagun baten ohean esnatu da Garazi eta horrek bere ordurako bizimodua, harremanak, ziurtasunak eta usteak irauliko ditu. Abenduaren 13an izango da aurkezpena eta ordura aurrerago zehaztuko dute.

Elgoibarko sortzaileek ere beraien azken lanak erakutsiko dituzte Durangoko Azokan



Hitz jokoetan aditua eta aritua izan zen gazte ermuarra.

Markos Gimenoren sormena ikusgai

Joseba Sarrionandiak Markos Gimenoren 101 letrakartel liburua aurkeztuko du Durangoko Azokan, abenduaren 8an.

Markos Gimeno *autore erotua* da, eta horra hor liburu honetan agertzen den lehen palindromoe-tako bat, hau da, aurretik atzera eta atzetik aurrera berdin-berdin irakurtzen den hitz, zenbaki edo perpausa. Kasualitateak sortu-takoak direla eman dezakeen arren, hitz joko horien atzean irudimen eta sormen esparru zabala dago, eta mundu horretan bere saltsan ibiltzen zen Ermuko gaztea.

Joseba Sarrionandia idazleak duela bi urte ezagutu zuen Markos Gimeno ermuarraren lana eta, liluratuta, haren "jenialtasuna" munduan zabaltzeko erabakia hartu zuen: "...harrigarria iruditu zitzaidan Markosek sortutako obraren grazia. Are ikaragarriagoa iruditu zitzaidan momentuan ia ezezaguna izatea, euskal mundutxoan ere, Ermutik

edo Eibar aldetik kanpora", azaldu du Sarrionandiak liburuaren hitzaurrean.

Sortzailearen inguruan beti izan den senide eta lagun sare horretara hurbildu zen idazle iurretarra, eta lana biltzeari ekin zion, baina ez Markosen lan guztiak liburu-kote baten bildu eta argitaratzeko, baizik eta bere obra "kalepsiatik atera, eta haren lanaren parte bat behintzat, palindromoen, euskal hitzunen artean (...) ezagutarazteko; iratzarri, bizkor-tu eta zabal dadin".

Horrela sortu zen Markos Gimeno-ren 101 letrakartel, Markosen palindromoekin hainbat marrazkilarik, grafiterok eta argazkilarik egindako ehunetik gora kartel biltzen dituen. Kolaboratzaile hauen artean daude, besteak beste, Esther Astarloa, Jose Antonio Azpilikueta, Sonia Garcia, Gorka

"Kartel palindromiko bakoitza (...) jolas liluragarri bat izango da edozeinen gogo ernearentzat"

González, Exprai, Santos Vega, Monti, Klemen Corredera edota Tono Fernandez. Guztira, ia 40 lagunek parte hartu dute, lanari askotariko ikuspuntu eta ukituak erantsiz. Material guzti hau batu eta forma eman, edizio grafikoa alegia, Esteban Montorio diseinatzailearen esku utzi da.

Markosen inguruan

Markos ezagutzen ez zutenek haren bizitzaren gorabehera guztiak, edo gehienak, topatuko dituzte liburuaren lehen berrogeita hamar orrietan, inguruko enahotsek kontatuta. Hona hemen liburuaren erreseinan topatu daitekeen aurkezpen laburra: "Markos Gimeno Vesga 1974ko maiatzaren 3an jaio zen Ermuan. (...) Bere bizitza sorkuntzara bideratu zuen, nahiz eta bipolaritate gaitasuna eta depresioaldiak jasan. Bere buruaz beste egin zuen, azkenean, Eibarren 44 urte zituela, 2018ko abenduaren 7an.

Markos bizi osoa (...) sortzen ibili zen euskal komunitatearentzat (eta humanitate osoarentzat, jakina). Haren kartel palindromiko bakoitzak sorpresa linguistikoa bat aportatzen du, eta jolas liluragarri bat izango da edozeinen gogo ernearentzat".

Liburua eskuratu

Liburua irakurri nahi dutenek Durangoko Azokan eskuratu ahal izango dute. Era berean, Ermuko eta Eibarko liburu-dendetan salgai jarriko da, hala nola Interneten ere.



Pop, folk, elektronika eta sustraiko musika dira nagusi Izaroren azken diskoan.

Izarok aro berri bati emango dio hasiera

Mallabiko abeslariak Durangoko Azokan aurkeztuko du bere bosgarren diskoa, *Cerodenero*, hala nola bideoklip berria

"Bi urte eta zertxobait gehiago egon gara *Cerodenero* eraikitzen. Hasieran, nik bakarrik hasten dut beti ibilbidea eta bidetik jendez inguratzen noa elur bola txiki bat bezala, handi-handi heltzen dena mendi magalera". Hitz horiekien laburtzen du Izaro abeslariak *Cerodenero* diskoa sortzeko prozesua, eta abenduaren 8an berau osatzen duten hamabi abestiek argia ikusiko dute Durangoko Azokan.

Abeslariak aurreratu duenez, *Cerodenero* album kontzeptuala zirrargarria eta bizia da. Berak burututako barne-bidaia da, eta, bertan berreskuratzen ditu pop, folk, elektronika eta sustraiko musika doinuen kontrastez beteriko mihiseak, lehen estrofatik harrapatzen duten poesia eta metafora zertzeladak dituztenak. "Izarok bere alderik argitsuena erakusten digu, baina baita ba-

satiena ere, aro berri beti hasiera emanez", adierazi dute zabaldu-tako prentsa oharrean.

Diskoak hamabi abesti biltzen ditu eta horietako lau entzungai daude dagoeneko hainbat plataformatan eta ikusgai YouTubean: *introa*, *Zero*, irailean estreinatuz; horren ostean, *x eta bestea*k zabaldu zen; urrian, *Campamento base* eta azaroan, *Iparraldera*. Abenduaren 8an, bosgarren bideoklipa estreinatuko du, Durangoko Azokako Irudienean, 13:00etan. Horrez gain, standa izango du Azokan, eta bertan egongo da egunero, sare soziale-tan jakinarazi duenaren arabera.

Aurrezalmenta

Izarok bi formatutan kaleratuko du *Cerodenero*: biniloan (35 €) eta CDan (18 €); eta bere webgunean eros daiteke dagoeneko (www.izaromusic.com), abeslariak aurrezalmentari ekin baitzion urriaren 10ean. Bide hau erabiltzen dutenek abenduaren 8tik aurrera jasoko dute diskoa, abeslariak sinatuta.

Durangoko Azokan erosten dutenek ere Izaroren sinadura eramango dute *Cerodenero*ren azalean.

Aurkezpen bira

Durangoko hitzordua eta gero, aurkezpen birari ekingo dio Izarok. Hala, urtarrilaren 2an Bilboko Euskalduna Jauregian joko du; 3an eta 4an Donostiako Kursaal Auditorioan; 13an Las Palmaseko Sala Insular de Teatron akustikoa eskainiko du eta 20an akustikoa baita ere Pozuelo de Alarconeko Inverfest Teatro Miran. Otsailaren 3an Gasteizko Principal Antzokian egongo da; 9an Bartzelonako Apolo aretoan; martxoaren 2an Sevillako La Cartujan joko du, eta iragarrita dagoen azken kontzertua martxoaren 18 burutuko da, Iruñeako Baularten. Sarrerak salgai daude dagoeneko.

Izarok iaz kaleratu zuen bere azken diskoa, *Limones de oro*, Amaral, Xoel López, Zahara eta Rozalen bezalako artistekin batera grabatutakoa. Haiekin batera, estatu osoan zehar bira egiteko aukera izan zuen eta Helsinki, Paris, Mexiko Hiria eta Buenos Aires bezalako hiriburuetan egon zen. Disko hari lotutako biran, Anoetako Belodromoko sarrerak agortzea lortu zuen, hori egitea lortu duen lehen emakumea izanik.

Urtarrila eta martxoan bitartean aurkezpen bira burutuko du, eta sarrerak salgai daude dagoeneko



Jon Artanok 'Juana' liburua plazaratu du



Jon Artano zestoarra 'Juana' liburuaren aurkezpenean, Donostian. ELKAR

Jon Artano Izeta kazetariak (Zestoia, 1978) bere lehen liburua argitaratu du, *Juana*, Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatzen duten Tene Mujika bekaren laguntzaz. Kazetaritza "su geldoan" egin nahi zuen Artanok eta horretarako baliatu du beka. Azken asteotan Donostian, Deban eta Zestoan aurkeztu du

emaitza eta Durangon egingo du beste aurkezpen bat, abenduaren 8an (19:00etan).

Juana Perea Plata da liburuiko protagonista, 1937an Bilbotik ihesi Bogotara iritsitako euskal familia batean jaiotako "ardi beltza", legendazko emakume bat. Nera-be zela, etxetik alde egin zuen Karibera. Urpekari profesional

bihurtu zen, belaontzietan bizi izan zen, telebistan produktore lanak egin zituen, Afganistanen ibili zen gerran, hotel bat eraikitzen hasi zen gero... "Oso noizean behin sortzen diren pertsona horietako bat izan zen *Juana*", laburbildu du Artanok. "Abenturazalea, ausarta, mugarik ezagutzen ez zue-na, mugak topatuz gero mugak pasa egiten zituena, erakarpin indar handikoa... Bere senide bat-ek esan zidan bezala, urakan bat zen". 2020ko urriaren 29an tiroz erail zuten Kolonbian, "agian marra bat baino gehiago gainditu zuelako, agian gehiegi nabarmen-du zelako".

"Nahikoa bere horretan"

Artanok *Anderik Ande* izeneko proiektuarekin irabazi zuen iaz Tene Mujika beka. Ameriketako ibilitako hainbat euskaldunen kontuak eta Euskal Herrian dabil-tzan hainbat amerikarrenak jasot-zea zen hasierako asmoa eta sei hilabeteko bidaiari ekin zion Argentinan, Txilen, Bolivian, Perun, Ekuadorren eta Kolonbian. Azke-nean, ordea, Perearen eta haren familiaren istorioari eman dio li-buru osoa, "liburu izateko nahikoa zelako bere horretan".

Tene Mujika eta haren ekarpena, argitara

Tene Mujika bekaren fruitu diren liburuez gain, Robustiana Mujika Egaña, *Tene* (1888-1981) idazle eta olerkari debar-raren irudia eta lana ezagu-tzera emateko bestelako argi-talpenik ere izango da aurten azokan. Otsailean aurkeztuta-ko *Tene Mujika* emakumea. Piz-kundetik ahanzturara. XXI. men-detik ateratako postargazkiak ikerlana da adibideetako bat.



Nekane Goikoetxea. AIURRI

Mondragon Unibertsitateko irakasle Nekane Goikoetxea Agirrek (Deba, 1970) osatu da lana. Helburua bikoitza izan da. Batetik, Tene Mujika bere garaian kokatuta eta haren soziobiografia aintzat hartuta, bere ekarpenari balio handiagoa eman nahi izan dio egileak; bestetik, Mujikaren azterketan genero ikuspegia txertatu du. Eusko Jaurlaritzaren Berdintzen bekarekin ondu du ikerlana Goikoetxeak.

Sei disko Gaztelupeko Hotsak diskoetxetik

Euskal musika doinu latinoekin, jazz-a, euskal tradizioaren eta melodien egokitzapenak, Nick Caven bertsoiak... denetarik izango da

Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak sei disko izango ditu aurtengo Durangoko Azokan, Zabaltzenen standean.

Sei disko horietatik bi Gaztelupeko Hotsak zigilupean argitaratutakoak dira: Txuma Murugarren entzutetsuarena eta Ache Pa Ti taldearena. Beste laurak, berriz, Errabal Jazz zigilupean argitaratu dituzte: Javier Lopez Jaso, losu Izaguirre Sextet, Giulio Ottanelli Quartet eta Nevermind Quartet.

Txuma Murugarren: Gautegia
Gaztelupeko Hotsak-eko Joxe Felix Azkarate Xarrak nabarmendu duenez, "Gautegia/Nocturama Txuma Murugarrenen diskografiaren mugarri da orain eta gaurtik aurrera. Bere Nick Caverekiko mirespen eta lilura azaltzeaz gain, Txuma bera, egile eta sortzaile berezi bezala dagokion lekuan jarri dezakeena eta jarriko duena. Handien artean, nola ez."

Ache Pa Ti: Bilakatzen

Jazz latino eta kubatar sustraiko musikarekiko zaletasuna Euskal Herriko kultura eta folklore tradizionalarekin uztartzen dituen Ache Pa Ti talde iruindarrak, berriz, *Bilakatzen* izeneko bigarren diskoa argitaratu du. Bertan, "bereziki deigarria da txistuaren presentzia eta garrantzia, bera baita nagusi eta gidari doinu gehienetan, erraztasun eta naturaltasun txundigarritz moldatuz era guztietako doinu eta erritmo latinoetara. Ache yoruba hizkun-



Txuma Murugarren.

tzako hitza da eta *Ache pa ti* esarak zorte on eta zoriontasun nahia adierazten du", azaldu du Xarrak.

Javier Lopez Jaso: Zimelezin

Bestalde, Azkarateren esanetan, Oiartzungo Mecca estudioetan grabatutako proposamenarekin dator Javier López Jaso soinu-jole nafarra *Zimelezin* diskoarekin. Mikel Andueza saxofonista, Marcelo Escrich kontrabaxua eta Dani Lizarraga bateria-jotzailea moduko musikari eta lagun handiez inguratuta, bidaia moduko bat planteatzen du. "Javier beraren kantu originalekin batera, euskal tradizioaren erritmoen eta me-

lodien egokitzapen bikain eta sofistikuak, eta mitologia kutsuko kantu herrikoiak (Axuri Beltza, Txoria txori) aurki ditza-gegu bertan".

Iosu I. Sextet: Mingus Mood

Iosu Izaguirre Sextet taldeari dagokionez, "Mingus maisuaren musika disezcionatu eta osagai txiki eta sinpleenetara murriztu du, haiekin omenaldi moduko eraikiz eta "guztiz Mingus" bat aurkeztuz", dio Gaztelupeko Hotsak-eko Xarrak. Gaineratutakoaren arabera, losu Izaguirrek konposatutako zortzi doinuz osatutako lana da *Mingus Mood*, Gasteizen 2022an grabatuta, Vital Fundazioaren Araba Aretoan.

Giulio Ottanelli Quartet

Getxoko Jazzaldien 46. edizioan talde onenaren saria Giulio Ottanelli laukoteari eman zitzaion. Parisko goi mailako kontserbatorioan ezagutu zituen Jeremie Lucchese (saxo tenorra), Cyril Drape (kontrabaxua) eta Emile Rameau (bateria), eta eurekin sortu zuen laukotea; eurak ere izango dira presente Durangoko Azokan. "Taldearen musika, euren emanaldiak hain erakargarri egiten dituzten melodia luzeetan oinarritzen da", dio Xarrak.

Nevermind Quartet

Azkenik, Xarrak nabarmendu duenez, Euskal Herriko jazz eszenan presentzia handiko musikariak dira Nevermind Quartetekoak. Hasier Oleaga The Heckler-en, Teresa Zabalzaren boskotean edo Ruper Ordorikaren eta Mikel Laboaren ondoan aritu izan da, Julen Izarra Trizak taldean, Jorge Abadias hainbat ekimen biltzen dituen ibilbide luzearen jabe da eta Aritz Luzuriaga Bilboko JC Arriagako kontserbatorioko irakaslea da, besteak beste.



Debabarreneko uzta



NEREA LOIOLA PIKAZA
‘Idatzi behar nizkizunak’
Erroa argitaletxea.




NEREA LOIOLA PIKAZA
‘Azken denbora’
Bilduma: Eskapu liburuak, 2. Erein argitaletxea.



ANE BASTIDA LIZASO
‘Hideane eta bere lagunak’
Ilustrazioak: Nadia Beltran de Lubiano. Denonartean argitaletxea.




GOIZANE AIZPURUA IBAÑEZ
‘El reflejo de la tibieza’
Alberdania argitaletxea.




JON ARTANO IZETA ‘Juana’
Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak elkarlanean argitaratutako lana.



NEKANE GOIKOETXEA AGIRRE
‘Tene Mujika emakumea.’
Pizkundetik ahanzturara: XXI. mendetik ateratako postargazkiak’
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.



TIRO 'Gure irtenbidea'
TAE Records diskoetxea.



JOKIN BERGARA 'Adaxka lehorrak. Talka ekosozialaren biharamun politikoak'
Txalaparta argitaletxea.



KVALVIKA 'KVK'



OLAIA IRIGOIEN 'Inesa Gaxen'
Adapta argitaletxea.

OLAIA IRIGOIEN 'Misión Don Quijote y Sancho Panza'
Adapta argitaletxea.




UXUE ALBERDI ETA DANELE SARRIUGARTE 'Zirriborroak eta gero'
Consoni argitaletxea.



UXUE ALBERDI 'Surflaria'
Ikastolen elkarte.



UXUE ALBERDI 'Belarriko kilkerra'
Elkar argitaletxea.



JASONE OSORO 'Arrakasta'
Elkar argitaletxea.



MUSIKA



AMORANTE 'Harri, herri, har'
Forbiden colours argitaletxea.

MALLABIA

MUSIKA



IZARO 'Cerodenero'

ERMUA

LITERATURA



TXABI ARNAL ETA EDU ZELAIETA
'Gora gure alkate jakintsua!'
Elkar argitaletxea.



JOSEBA SARRIONANDIA 'Markos Gimenoren 101 letrakartel'
Pamiela argitaletxea.

SORALUZE

MUSIKA



TXUMA MURUGARREN 'Gautegia'
Gaztelupeko Hotsak.



ACHE PA TI 'Bilakatzen'
Gaztelupeko Hotsak.



JAVIER LOPEZ JASO 'Zimelezin'
Errabal Jazz.



IOSU IZAGUIRRE SEXTET 'Mingus Moods'
Errabal Jazz.



GIULIO OTTANELLI QUARTET
'Getxo Jazz 2023'
Errabal Jazz.

NEVERMIND QUARTET 'Boost lau gara'
Errabal Jazz.

MUZAK 'Irabaziak eta galerak'

"Daukagun zarata guztia aterako dugu Ahotsenean"

JOANES IÑURRIETA BOKALISTA

Ahotseneako oholztan izango diren 49 taldeen artean, bat, Muzak, Debabarrenekoa da. Abenduaren 10ean, 15:40an egingo dute zuzenekoa.

Muzak taldeko Joanes Iñurrieta (Soraluze, 1991), Ruben Irigoyen (Elgoibar, 1991) eta Aitor Sagarremendi (Mutriku, 1994) "pozik" daude aurten Durangoko Azokako Ahotsenean egon ahal izatea lortu dutelako. Joanes Iñurrieta taldeko bokalista soraluzetarrak azpimarratu du Durangon taldeak duen "zarata guztia" aterako dutela.

Ahotsenean kontzertua eskaintzea beste jauzi bat izango da Muzak taldearendako?

Durangoko Azoka, Euskal Herri mailan, oso hedabide ona da, artista baldin bazara, batez ere. Urteko ekimenik potenteena da kulturalki musikaren eta liburuaren arloan eta hor egotea oso garrantzitsua da. Iaz, saiatu ginen *Programaturik* lanarekin Ahotsenean sartzen, baina ez genuen lortu. Aurten pozik gaude lortu dugulako eta han egongo garelako.

Zer eskainiko duzue Ahotsenean?

25-30 minutuko kontzertua izango da, lauzpabost abesti joko ditugu guztira. Ez da izango kontzertu akustikoa. Daukagun zarata guztia aterako dugu.

Denetik joko duzue?

Aurten atera dugun *Irabaziak eta Galerak* (Gaztain Estudioak) EPan oinarritutako zuzenekoa izango da eta oporren aurretik publikatu genuen *Gezur Mila* singlea ere sartuko da. *Irabaziak eta Galerak* EPari dagokionez, *Programaturik* (Gaztain Estudioak, 2021) laneko abesti guztiak ere baditu.

Bigarren EPan zuen bi lanetako kantu guztiak batu dituzue?

Bai. Kontua da lehen diskoarekin, *Programaturik*-ekin ez genuela atera disko fisikoa eta gero damutu egin egin ginela. Hala, *Irabaziak eta Galerak*-ekin CDa atera genuen. CD horrek dauzka lau abesti berri

gehi bonus modura, *Programaturik*-eko zazpi abestiak gehigarri.

Eta zuen CD hori erosteko aukerarik izango da Durangoko Azokan?

Bai. *Irabaziak eta Galerak* salgai egongo da azokako Musika Zuzenenean-en standean.

Zergatik damutu zineten diskoa atera ez izanaz?

Disko fisikoa gaur egun ez da asko saltzen, baina gertatu izan zaigu momentu puntualetan jendeak eskatu izana eta pena horrekin geratu ginen, fisikoa nahi duen horri diskoa ezin emanarekin,

"Durangoko Azoka da urteko ekimenik potenteena musikaren eta liburuaren arloan"





Aitor Sagarmendi, Joanes Iñurrieta eta Ruben Irigoyen.

MUZAK

aparte, abesti ona da, denbora inbertitu dugu single horretan, lana dauka eta entzuteko gustoso da. Bestalde, saiatzen gara konstantzia mantentzen, abestiak publikatzerakoan, sare sozialetan idazterakoan... Hor egon behar duzu, bestela...

Sare sozialak zaintzen ibiltzen zarete, justu zuek 'Gezur Mila' kantuan kritikatzan dituzuen sare sozial horiek...

Bai, abestiak kritika hori egiten du. Kontziente gara sare sozialek pertsonengan duten eraginean, baina horren konplize ere bagara. Paradoja moduko bat da.

Urrian eskaini duzue aurtengo biraren azken kontzertua; non egon zarete gusturen?

Su ta Garrekin Elgoibarren, edo gustuko ditugun bestelako taldeekin. Adibidez, Bergarako Kartzela Zaharrean Sofa eta Dena taldeekin jo genuen.

Abenduan Ahotsenean jo ondoren, baduzue bestelako asmorik taldearendako?

Zuzenean jotzea. Normalean ez diegu ezezkorik ematen joteko aukerei eta beti gaude zabalik proposamenetarako. Bestalde, sortzen ere hasi gara dagoeneko. Ez dugu erabaki zer izango den, diskoa ala singlea, baina sortzen ari gara eta hori garrantzitsua da. Sortutako lanaren helburua gure buruak asebetetzea izaten da, eta ez da erraza izaten oso zorrotzak garelako horretan.

guretzat zer bait berezia ere bada guri disko fisikoa eskatzea. Tabernetan edota aretoetan lagatzeko ere aproposa da... Kasu gutxi izan arren, CD fisikoa ateratzeak me-rezi zuela erabaki genuen. Ehun ale atera genituen, hogeitik behera geratzen dira eta oraingoz ez dugu kopia gehiago ateratzeko asmorik.

Gezur mila singlea uda aurretik dago entzungai, zelako harrera izaten ari da ?

Harrera oso ona izan dugu. Hori ikusi dugu plataforma digitaletan, oso ondo kontabilizatzen dira entzunaldiak. Spotifyn, adibidez, erreproduktzio gehien izan dituen Muzak-en abestia da. Horrez aparte, kritika onak izan ditugu, batez ere gertuko jendearenak. Gure soinetatik jarraitzen dugu. Taldearen nortasun propioa erakusten du.

Zein da zuen nortasun hori?

Hirurok oso gaztetatik izan dugu bereziki distorsionatutako gitarrekiko predilekzioa hori, talde ezberdinak entzuten ditugun arren. Nik Pop-Rock-era egin izan dut beti gehiago eta Ruben eta Sagarek Metal-era (progresiboa, death, doom...). Gainera, proiektu oso ezberdinetan izandakoak gara Muzak sortu aurretik.

Zergatik uste duzu azken single horrek izan duela arrakastarik handiena?

Musikari moduan pauso txikiak ematen goaz pixkanaka-pixkanaka eta geroago eta difusio handiagoa lortzen ari gara. Horrez

"Gezur mila da erreproduktzio gehien dituen Muzak-en abestia"

"Krisi ekologikoak krisi sozialak eragiten ditu gizarte kapitalista honetan"

JOKIN BERGARA SOZIOLOGOA ETA IDAZLEA

Gogoeta soziologikoak, politikoak eta pertsonalak tartekatuz, trantsizio ekosozialaren tentsio-ardatzak aurkezten ditu eibartarrak 'Adaxka lehorrak' liburuxkan. Abenduaren 8an, 17:30ean, izango da aurkezpena.

"Adaxka lehorrak. Talka ekosozialaren biharamun politikoak" da liburuaren izenburua. Biharamun horiek bizi ditugu dagoneko? Heltzeaz daude? Zein momentutan aurkitzen gara?

Talka ekosozial hori pizten ari gara eta biharamunaren kontzeptua erabili dut, modu metaforiko baten esateko horrek ondorio sozial eta politiko batzuk ekarriko dituela eta ekartzen ari dela jada. Krisi ekologikoan sakondu ahala, geroz eta maiztasun eta indar gehiagorekin joango gara bere ondorioak ikusten, bai klimaren aldetik, bai krisi energetikoaren aldetik, baita ondorio politikoen aldetik ere. Azken horrekin lotzen dira faxismoaren gorakada eta Europako egoera gatazkatsu eta gerrazalea, besteak beste.


Krisi ekologikoa aztertzeaz gain, zer bide zabaldu daitezkeen irudikatzen saiatu zara. Zeintzuk dira bide horiek?

Gai hau bada beldurra sortu dezakeen gai bat. Batzuek paralizatzailea dela diote. Beraz, eraldaketan sinesten dugunok, eraldaketa horri bizirik eusteko aldarria egiten dugu liburuan. Eta zer bide hartu dezakegun? Hainbat proposamen egiten dira. Adibidez, industria, gaur ezagutzen dugun bezala (Debabarrean makina-erremintari eta automozioari oso lotuta dagoena), oso sektore kutsatzailea da, eta liburuan ariketa bat egiten da birmoldaketa nola egin pentsatzeko, ikuspegi demokratiko batetik. Hau da, trantsizio ekosoziala erabiltzea enpresak

"Krisi ekologikoaren ondorio dira faxismoaren gorakada eta Europako egoera gatazkatsua"

demokratikoagoak izateko (aberrastasuna gehiago banatzeko langileen artean, adibidez). Horrela, behar dugun trantsizio kulturalari bideratuta dago liburuaren zati handi bat. Gaur egun 'bitzita ona' bezala identifikatzen dugun horri eta gure identitatea eraikitzeo erabiltzen ditugun ekintza horiei kritika egiten zaie (kontsumoari, oporretara joateko 10 orduko bidaiak egiteari, auto eta etxe berriak erosteari...). Gure identitatea eraikitzeo beste mekanismo batzuen beharra agertzen da, lasaiago bizitzeko aldarria, eta gutxiagorekin bizitzea ez dela zertan izan okerrago bizitzea, baizik eta hobeto bizitzea, denbora gehiago izan dezakegulako lagunekin egoteko, gurasoak edo seme-alabak zaintzeko, irakurtzeko edo gustuko dugun edozer gauza egiteko.

Beraz, trantsizio ekosozialak hainbat arlo ezberdin zeharkatzen ditu?



Abenduaren 8an aurkeztuko du liburua Bergarak Durangoko Azokan. TXALAPARTA

Bai, noski. Hori da krisi ekosozialaren ideia. Hau da, badago krisi material bat, ekologikoa bezala definitu daitekeena zientifikoki (klima aldaketa, biodibertsitatearen galera, energia krisia, baliabideen agortzea...); eta gero, alde soziala dago, oinarri material guzti horren krisiak krisi sozialak eragiten dituelako sistema kapitalista honetan. Hor sartzen da gizartea beste modu baten antolatzeke eztabaida eta, noski, politika, soziologia, historia, ekonomia, zuzenbidea... Denetik, azken neurrian.

Liburua Euskal Herrian kokatzen da edo mundu mailako arazoak lantzen dituzu?

Krisi ekosozialari Euskal Herrikit begiratzen saiatu naiz, jakinda maila globalean adierazten den gaia dela. Gure herriaren ezaugarriak kontuan hartuta, Euskal Herrira ekartzen saiatu naiz, eta honek gure herrian zein tentsio

nagusi sortzen dituen. Adibidez, energia berriztagarrien inguruan dagoen eztabaida hau da: "jarriko ditugu?", "ez?", "non?". Nire ustez, zabaldu behar den eztabaida hurrengo izan behar da: Energia berriztagarriak lortzeko behar ditugun mineralak hegoalde globaletik ateratzen ditugu, nolabaiteko neoestraktibismo prozesuetatik, eta gure trantsizio berdea pentsatzeko herrialde horiekin nola harremandu beharko ginatekeen eztabaidatu beharko genuke. Adibidez, Ekuadorreko Amazonian badago egur mota bat oso ona omen dena haize-erroten

"Ekuadorreko Amazonia ari gara deforestatzen gure trantsizio berdea egiteko"

palak ekoizteko (asko irauten baitute eta ez direlako azkar higitzen). Orduan, gertatzen ari dena da Europako eta AEB-ko enpresak sartu direla han lehengai hori erostera eta, ondorioz, Ekuadorreko Amazonia ari garela deforestatzen gure trantsizio berdea egiteko. Paradoxikoa da.

Liburuxka arina egiten saiatu zarela aipatu izan duzu. Gaia gehiago garatzeko gogoarekin geratu zara?

Liburuxka hauen helburua (eta hortik bere formatua) eserialdi baten irakurtzeko modukoak izatea da. Hau da, arratsalde baten hiru-lau ordutan irakurtzeko modukoak izatea. Idazteko eskatu zidatenean hori izan zen arazoa: zertan zentratu, zeri garrantzia eman... Orduan, liburuxka motza denez, laburtzea pixka bat kostatu zait eta, agian, gauza batzuk behar duten sakontasunik gabe joan dira, baina tira, sintetizatze lan batek hori eskatzen du.

Beraz, oso sakona den gai bati heltzeko balio dezake? Krisi ekosozialaren inguruan sakontzen hasteko baliagarria da?

Hori da. Ez da gaiaren inguruko doktoretza tesi bat. Gehiago da gai honetan hasi nahi duenak edo interesa duenak hartzeko eta modu azkar baten gaian sarrera bat edukitzeko.

Ahotseneako musika egitaraua

Asteazkena 06



NØGEN 11:00-11:30

KONPOST 12:10-12:40

ESANEZIN 13:20-13:50

LILLO 14:30-15:00

POSTAL KOLEKZIONISTAK 16:50-17:20

AKALEIA 18:00-18:30

YOGURINHA BOROVA 19:10-19:40

MARLIK 20:20-20:50

ARIMA 21:30-22:00

Osteguna 07

XABI SAN SEBASTIAN 13:20-13:50

KADIRA 14:30-15:00

BRAULIO 15:40-16:10

MURGI 16:50-17:20



MOXAL 18:00-18:30

ZATIBI 19:10-19:40

ZEKER 20:20-20:50

EZEZEZ 21:30-22:00

Ostirala 08

LOTURA 11:00-11:30

EIDER 12:10-12:40

EIRE 13:20-13:50

MIREN ETA ROBERTO

ETXEBARRIA 14:30-15:00

NAKAR 15:40-16:10

ITHAKA 16:50-17:20



SARA ZOZAYA 18:00-18:30

TXOPET 19:10-19:40

SILITIA 20:20-20:50



TOC 21:30-22:00

Larunbata 09

KE LEPO 11:00-11:30

TRB 12:10-12:40

AMORANTE 13:20-13:50

LEIHOTIKAN 14:30-15:00

HAIZE-ARROSA 15:40-16:10

OTOI 16:50-17:20



ETXEPE 18:00-18:30

RUKULA 19:10-19:40

FELINE 20:20-20:50



IBIL BEDI 21:30-22:00

Igandea 10

INTZA 11:00-11:30



MAMU 12:10-12:40

KARMA 13:20-13:50

HAIRA 14:30-15:00

MUZAK 15:40-16:10

KUMA NO MOTOR 16:50-17:20



MODUS OPERANDI 18:00-18:30

KEMARONTE 19:10-19:40

MUARE 20:20-20:50

JABI PATXON ETA KOFRADIA

ROCK 21:30-22:00



VIII. GILDA LEHIAKETA EIBARREN



ABENDUAK

12

13

14

TABERNENTZAT
SARIAK

1



2

**HERRITARREK
AUKERATUTAKOA
150€**

TABERNETAN BOZKATZEKO
KUTXAK ETA ORRIAK
EGONGO DIRA

**EPAIMAHAIAREN SARIA:
TRADIZIONALA: 150€
BERRITZAILEA: 150€**

EPAIMAHAIKIDEAK:
MIREIA JOSU XABIER
ALONSO MUGERZA ALBIZU

BOZKETAN PARTE HARTZEN DUTEN BEZEROEN ARTEAN
ASTEBURUKO EGONALDIA ZOZKETATUKO DA BI LAGUNENTZAT.

VIII. GILDA LEHIAKETA

AKARA

UNTZAGA, 4



ALOHA

TORIBIO ETXEBARRIA, 18



AMETSA

T. ETXEBARRIA, 2



BACOLEKU URKIZU

URKIZU, 11



BANAKA

CALBETON, 26



BARATZE

BIDEBARRIETA, 39



GURIDI

UNTZAGA, 3



KONTENT

EGO GAIN, 6



KOSKOR

CALBETON, 6



ABENDUAK

12

13

14

AGUIÑASPI
URKIZU, 22



ASTELENA
ESTAZINO, 7



AZKENA
TIBURZIO ANITUA, 5



BACOLEKU EGO GAIN
EGO GAIN, 4



BIRJIÑAPE BERRIA
T. ETXEBARRIA, 15



BOSSA
EGO GAIN, 7



EZ DOK ZAI ZOI
BITTOR SARASKETA, 902



KULTU

ZULOAGATARREN, 3



LUSAI

ERREBAL PLAZIA



TRINKETE

ERREBAL, 24



Unax Garcia Legaristi

2023/11/25



Zure begirada zintzo fiabarrari
barne bizitza sakona dario
samin malco gainez gure begia orain ari,
partida guztiz bukatu artio
betiko begirunez zu gurean jostari
Unax zolia, herabea, maitea, ez adio.



- ALDATZEKO zure familia -

Josean Alonso Gonzalez

1. URTEURRENA
2022/12/05

"Bizitzak goizegi eraman
zintuen gure ondotik,
baina gure oroimenean
eta bihotzean betirako
jarraituko duzu"



- ETXEKOAK -

Maria Elcoro-Iribe Osa

1. URTEURRENA
2022/12/01

"Hain urrun,
eta hain gertu.
Asko maite
zaitugu"

- ETXEKOAK -

BERE ALDEKO MEZA
hilaren 3an, domeka, 12:00etan,
Karmengo Amaren Eliz Parrokian



Roberto Isasi Gisasola

3. URTEURRENA
2020/11/27

Gurekin beti
hemendik eta
izarretaraino

- ETXEKOAK -



Nicolas Zurutuza Otxandorena

3. URTEURRENA
2020/11/29

"Gure bihotzean
betirako eramango
zaitugu"

- ETXEKOAK -



Antonio Alberdi Atxa

5. URTEURRENA
2018/12/08

"Ez ditugu inoiz
ahaztuko izan dituzun
ilusioa eta bizipoza"

- ETXEKOAK -





Eibarko Kirol Sarien 28. edizioa egingo da Coliseon Gabon Zahar eguneko 12:00etan

Aurten ere Eibarko Kirol Sariak banatuko ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Urtero Gabon Zahar egunean egiten den ekitaldian gure herriko kirol talde guztien lana saritzea nahi izaten da eta espiritu horrek animatzen du 28. edizio berri hau ere. Abenduaren 31ko ekitaldia 12:00etan hasiko da eta, azken aldian bezala, Coliseon egingo da.

Aurreko 27 edizioetako sari bereziak honakoak izan dira: Marcial del Amo, Manu Agirre, Txus Alzaga,

Juan Luis Mardaras, Juanito Gisasola "Txoko", Jose Luis Akarregi eta Miguel Gallastegi, Pako Larrañaga "Pakol", Iñaki Bolinaga, Pedro Egi-guren "Ixxua", Joxe Aranberri, Patxi Usobiaga, Pedro Agirregomezkorta "Petrus", Miriam Merino, Ramon Telleria, Inma Urkiola, Miguel Diego, Jaime Barriuso, Asier Cuevas, Jon Errasti, Tania Nagornaia, Markel Alberdi, Odei Jainaga, Davide Cerchi, Markel Susaeta, Amaieur Mayo eta Pello Osoro.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Gizonetako 2. Maila

Vila-real B - EIBAR (etzidamu, 20:30)

Emakumezkoen 3. Maila RFEF

Bizkerre - EIBAR B (etzi, 16:00)

Gizonetako 3. Maila RFEF

Beasain - VITORIA (etzi, 11:30)

Emakumezkoen Euskal Liga

San Ignacio B - EIBAR C (bihar, 16:15)

Erregionaleko Ohorezko Maila

EIBAR URKO - Urola (etzi, 16:00)

Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Billabona (bihar, 17:45)

Erregionaleko 1. Maila

Urola B - EIBARTARRAK (bihar, 16:00)

FOBALL-ZALETUA

• Adahi Eraieder - Malape (bihar, 09:00)

• GastroGilda - Garajes Garcia (bihar, 10:30)

• BOJ - Baserri (etzi, 09:00)

• Limpieza Rueda - Bar Marem (etzi, 10:30)

ESKUBALOA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

MEK EIBAR - San Adrian (bihar, 18:30)

Gizonetako 1. Nazional Maila

Egia - MEK EIBAR (bihar, 20:00)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

Basauri - MEK EIBAR B (bihar, 18:15)

Gizonetako Lurraldeko Liga

Urola - MEK EIBAR B (etzi, 11:15)

ERRUGBIA

Gizonetako Euskadiko Erregionala

EIBAR - Envases Rioja (etzi, 12:00)

SASKIBALOA

Gizonetako Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR B - Mundarro (etzi, 11:30)





San Andres Bertso Jaialdiak bertsozale ugari elkartu zituen Coliseon

Ia berrehun lagun bildu ziren joan den barixakuan San Andres Bertso Jaialdiaren bueltan. XXIX. edizioak eskaintzen zuen kartela ere ez zen nolana hikoia, punta-punta-

ko sei bertsozale jardun baitzuten oholtza gainean: Maddalen Arzallus, Unai Agirre, Unai Iturriaga, Oihana Bartra, Jon Maia eta Beñat Gaztelumendi, eskarmentu handi-



koak guztiak. Ondo baino hobeto erantzun zieten Jon Mikel Mujikak agindutako gaiei, gai sakon eta serioak batzuk, umoretik beste asko, ikusleak ez ezik, bertsozaleak eurak ere oholtza gainean barre batean jartzeraino. “Gu bagoaz, barreterapia-saioa eginda”, bertsozaleek esanda.

Lau bertsozale seira

...eta kitto! Euskara Elkarte bertsotaleak aspalditik zuen bertsozale jaialdiari buelta bat emateko gogoia, “azkeneko urteetan, pandemia eta gero batez ere, Sanandresetako saiora etortzen zen ikusle-kopurua jaitxi egin zen, nabarmen gainera. Horri buelta emateko moduetako bat saioa bera indartzea zela pentsatu genuen, eta, beste gauza batzuen artean, lau bertsozale seira pasatzea erabaki genuen. Horrez gainera, zabalakundean ere indarra jarri dugu eta inguruko herrietan-eta jarri ditugu kartelak. Lortu nahi duguna bertsozaleek, euren agendetan, San Andres bezperako barixakua gure saiorako gordetzea da, Markiñan edo Ermuan gertatzen den moduan. Oraindik asko falta zaigu horraino iristeko baina bide onetik goaz”, diote bertsozaleek.

Bertso-paper lehiaketako saridunak

Bertso-saioa hasi aurretik banatu ziren bertso-paper lehiaketako sariak. Gaztetxoan mailan Julen Blascok jantzi zuen txapela eta Peru Sasieta izan zen bigarren; helduen mailan, berriz, Oñatin bizi den baina jaiotzez azpeitiarra den Urko Egañak eraman zuen txapela eta 300€, eta bigarrenaren 250€-ko saria, berriz, Soraluzen bizi den Arrate Gisasola eibartarrak.



Eriz magoa ikusteko gonbidapenak badaude oraindik

Bihar, zapatua, Eriz magoak 12:00etan Coliseon eskainiko duen ikuskizunera joateko gonbidapenak gelditzen direla jakinarazi du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Gaur, barixakua, 17:30etik 19:00etara jaso daitezke gonbidapenak ...eta kitto!-n eta, soberan egongo balira, bihar goizeko 10:30etik aurrera Coliseoko leihatilan. Ikuskizunak ordubete iraungo du.

Datozen egunotan jarriko dira salgai Maiaren lan berrirako sarrerak

“Kantu berri bat gara” Jon Mairen ikuskizun berria urtarrilaren 12an izango da Coliseon arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Eibarko Udaleko Kultura sailak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak elkarlanean antolatu dute ikuskizuna eta, Sestaoren atzetik, gurea izango da estrenaldia egingo den lehen

herrietakoa. Sorpresaz beteriko ikuskizuna izango dela aurreratu dute antolatzaileek, “eibartarrontzat erreferente diren gonbidatu berezi askorekin”. Datozen egunotan jarriko dira salgai sarrerak, online Kutxabank.eus-en eta Coliseoko leihatilan ohiko egun eta ordutegian.

Kalean da azaroko Txikitto!

Joan den astean banatu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak eskoletan azaroari dagokion alea. Amaña ikastetxeko ikasleek nagusitan zer izan nahiko luketen esan digute; San Andres ikastetxean bertako ikasle bat amamarekin elkartu da eta elkarrizketa egin dio, belaunaldien arteko desberdintasunak agerian utziz, eta horrekin guztiarekin batera, ez dira betiko txiste, denborapasa, lehiaketa eta ipuinik falta. Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak jasotzen dute hileko Txikitto! aldizkaria. Bertan azaltzen diren lanetako asko eskolan lantzen dituzte ikasleek.



Azkeneko Barixakuak Jolasian egin da Urkizun

Aurreko barixakua Urkizuko parkeak hartu zituen Barixakuak Jolasian-eko jolasak. 2 eta 8 urte bitarteko haurrak primeran pasatu zuten jolasekin. Aurtengo azkenak izan dira, baina urtarrilean berriz ere itzuliko da auzoetara ...eta kitto!-ren ekimen hau.



Haurrendako antzezkizun musikala abenduaren 6an

Kelonia eta itsasoa haurrendako antzezkizuna eskainiko du Gorakada taldeak abenduaren 6an, eguaztena, 17:00etan Coliseo antzokian. Dora Cantero da lan horren egile eta zuzendaria eta musika, berriz, Fran Lasuenena da. Nerea Ariznabarreta antzezlea arituko da eszenatokian, Maider Lopezen musikak lagunduta. Sarrerak 5 euro balio du eta alde zurreratik erosi daitezke, leihatilan zein Kutxabank-en bidez.



Tentsioa eta estresa arintzeko ikastarorako izen-ematea

TRE izeneko teknikaren inguruko ikastaroa abenduaren 14rako antolatuta du ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Naiara Santaco adituak emango du tentsioa, estresa eta trauma askatzeko saioa, 18:30etik 21:30era ...eta kitto!-n. Parte-hartzaileek manta, kuxina eta esterilla ekarri beharko dute. Abenduaren 11ra arte eman daitezke izena, 943200918 telefonora deituta edo elkarteak@etakitto.eus helbidera mezua idatzita (5 euro). Askok dira teknika honek eskaintzen dituen onurak: “Kezka eta antsietatea gutxitzen ditu, energia, loa eta malgutasuna hobetzen ditu eta oso lagungarria da tentsioa, estresa eta giharretako mina murrizteko”.



Urpeko-argazki erakusketa eta lau proiektio antolatuta ditu Deporreko batzordeak

Bihar Topalekun zabalduko den argazki-erakusketak paso emango dio jarraian, hilaren 13tik 16ra arte, Coliseon eskainiko diren itsaspeko proiektioei. Urtero bezala, Deporreko Urpekaritza batzordetik eskaintzen zaigun aukera CIMASUB Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloaren barruan kokatzen da, oraingoan 22. edizioaren barruan. Topalekuko argazkiak hilaren 17ra bitartean egongo dira ikusgai eta bertan izango dira 24 irudi ikusgarri, “lehia-ketan jasotako 500 argazki baino gehiagoren artean aukeratutakoak”. Urpeko Errealeko Elkarteak eta Aquariumak ere babesten dute ekimena. Erakusketa egunero zabalduko dute 19:00etatik 21:00etara; zapatu eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara. Eta, lau egunetan jarraian, doako proiektioak eskainiko dituzte, Coliseon, 19:00etatik aurrera. Informazio gehiagorako: www.cimasub.com.

“Haurrak eta mugikorrak” hitzaldia Ipuruako merkatuan

Domekan “Haurrak eta mugikorrak. Noiz? Nola?” hitzaldia emango du Miren Ros hezitzaileak, Ipuruako Merkatu Plazan. Miren Ros familiei laguntza emateko Bidelagun proiektuko burua da eta hainbat gairen inguruko hitzaldiak antolatzen dituzte. Arreta gehien pizten dituenen artean dago mugikorraren erabilerari buruzkoa. Hitzaldia 11:00etan hasiko da. Horrekin lotuta, haurren artean egiten den produktu digitalen erabilerarekin kezkatuta dagoen Eibarko guraso talde bat izango da egun horretan. Euren asmoa Eibarren horri buruzko talde eragilea sortzea da eta gurasoak parte hartzera animatu nahi dituzte.



Disko berria aurkeztuko du bihar X5 Kolektiboak

Bihar 19:00etan hasiko da X5 Kolektiboaren, musika eta konplizitateak elkartutako taldearen, emanaldia Coliseon. Musikagintzan gorenean dauden Karlos Gimenez (pianoa), Iñaki Salvador (pianoa), Nerea Gorriti (ahotsa), Petti (ahotsa) eta Francisco Herrero (biolina, biola) dira X5 Kolektiboa osatu dutenak, eta Gimenezen kantekin osatutako *Abestiak gogoan* diskoa argitaratu berri dute. Hori zuzenean aurkeztera etorriko dira bihar. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



“Moor Krad” dantza ikuskizuna dakar Ertzak

Gaur 19:00etan aurkeztuko du “Moor Krad” izeneko dantza ikuskizuna Ertza konpainiak, Coliseo antzokian. Asier Zabaletaren zuzendaritzarekin, Valerio Di Giovanni, Rafke Van Houplines, Pilar Andres, Denis Martinez eta Thiago Luiz Almeida dantzariak arituko dira, Iosu Yeregui abeslariaren laguntzarekin. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Bazkideentzat bisita gidatua eta marrazketa tailerra antolatu ditu Kulturalak

Arrate Kultur Elkartearen eskutik hainbat jarduera egingo dira datozen egunotan. Biharko raku erakustaldia antolatu dute, Jesus Belaustegirekin. Horrez gain, abenduaren 11rako bazkideentzat bisita gidatua prestatu dute, Andretxean dagoen *Estilo ariketak*. *Emakumeen aurkako indarkeria simbolikoak* Josune Arangurenen erakusketa ikustera joateko. Bisita 17:30ean hasiko da. Eta abenduaren 16an *Dibujando para conectar* izenburuko marrazketa tailerra egingo da, Karla Black Bird artistaren eskutik. Euskarri birziklagarriak erabiliko dira marrazkiak egiteko. Arrate Kultur Elkartean izango da, 11:00etatik 13:00era, eta izen-emateak 7 euro balio du (5 euro bazkideentzat). Batean zein bestean izena emateko, edo informazio gehiago eskatzeko, 638 284 912 telefono zenbakira deitu daiteke, edo arratekultu@gmail.com helbidera mezua idatzi.

Cake-pop tailerra hilaren 19an

Gozozaleek “Cake Pop” deritzen aukera izango dute abenduaren 19an, ...eta kitto! Euskara Elkartean eskainiko den tailerrean. 18:30ean hasiko da



eta ordu eta erdi inguru iraungo du. Bizkotxoari forma ezberdinak emango zaizkio, txokolatea eta beselako apaingarriak erabiliz. Abenduaren 17ra arte eman daiteke izena, 943200918 telefonora deituta edo elkartera@etakitto.eus helbidera mezua idatzita (5 euro). Ikastaroa helduentzat zein umeentzat da (5 urtetik gorakoak), baina umeak heldu batez lagunduta agertu beharko dira.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	5			2	7
		5	1		8
1			8	7	
			2		5
3	9			4	1
6		8			
		3	5		9
4		1		6	
5	7			6	

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		4	6	1	3
2			7	1	8
			2		5
3	8				1
	2	5		6	7
1				5	4
5		9			
	6	1	4		3
	4	2	7	5	


**S
U
D
O
K
U**

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8



AURKITU 7 EZBERDINTASUNAK



LABIRINTOA

Abenduak 1-14

BARIXAKUA 1

GAZTE SAFAKO URRATSAK

17:00 Kulturartekotasuna, gastronomia postuak, musika tradizionala, berbalagun eta dastaketa txokoak, zoketa. Untzaga.

EUSKARAREN EGUNA

18:00/21:00 Gaitu ahots-grabaketa maratoia. Erreal Plaza.

DANTZA

19:00 "Mood Krad" (Ertza). 10 euro. Coliseo.

MANIFESTAZIOA

19:00 "Palestina aske!". Untzaga.

ZAPATUA 2

ZUHAITZ-LANDAKETA

09:30 Eibarko Baso Biziak taldea. Sautsiko parkea.

EUSKARAREN EGUNA

11:00/14:00 Gaitu ahots-grabaketa maratoia. Untzaga (harmailak eta jubilatutako etxea).

SANANDRESAK

11:00 Gaitu ahots-grabaketa maratoia. Trikitilariak, Musika Eskola eta Adolfo Jainagaren ikasleak.
12:00 Azoka+pintxoak: Sosola baserria, Sare herritarra...
12:30 Plazara Dantzara, Kezka dantza taldea eta Jainaga eta Aranburu.
14:00 Trikipoteoa, Eibarko trikitilari gazteekin.
15:00 Herri-bazkaria (autogestionatua). Bazkalostean, jolasak, Ikamaren eskutik.
19:00 Poteo girotua. Untzaga.

MAGIA

12:00 Eriz magoa. Gurasoko Berbetan eta Ongietorri egitasmoetako familientzat. Doan, gonbidapenarekin. Coliseo.

MUSIKA

19:00 X5 Kolektiboa. 10 euro. Coliseo.



DOMEKA 3

HITZALDIA

11:00-13:00 "Haurrak eta mugikorrak. Noiz? Nola?", Miren Rosen (Bidelagun) eskutik. Ipuruako merkatu plaza.

EUSKARAREN EGUNA

13:00/14:30 "365 egun" pegatinekin koloretzatzea, musika. Untzaga (harmailetan, euria bada, karpan).

ASTELEHENA 4

JARDUNALDIA

09:30/14:30 "Futbolaren berrikuntza: Etorkizunera begira". Eibar K.E.-aren instalazioak (Ipurua).

EGUAZTENA 6

ANTZERKIA

17:00 "Kelsona eta itsasoa" (Gorakada Teatro). 5 euro. Coliseo.

DOMEKA 10

TAILERRA

11:30/13:00 Haurrendako arkitektura tailerra, Maushausen eskutik. Ipuruako merkatu plaza.

ASTELEHENA 11

BISITA GIDATUA

17:30 "Estilo ariketak. Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoak", Josune Arangurenen erakusketara. Arrate Kultur Elkarteko bazkideentzat. Andretxea.

EGUAZTENA 13

ZINEMA

19:00 CIMASUB Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa. Doan. Coliseo.



BILERA

19:00/20:00 Bilera irekia. Ipuruako merkatu plaza.

EGUENA 14

ZINEMA

19:00 CIMASUB Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa. Doan. Coliseo.

ILLUNABARRIAN

18:30/21:30 TRE ikastaroa. ...eta kitto! Euskara Elkartearen lokala.

ERAKUSKETAK

Abenduaren 3ra arte:

- **EXFIBAR LIV. Seilu Erakusketa.** (Portalea).

Abenduaren 11ra arte:

- **"GAZTE SOZIALISTEN 120 URTE".** (Eibarko Herriaren Etxea).

Abenduaren 2tik 15era:

- **Donostiako Nazioarteko ITSASPEKO ZINEMA Zikloaren argazkiak.** (Topaleku).

Abenduaren 14tik aurrera:

- **"EIBAR GAUEZ", Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldearen kolektiboa.** (Portalea).

Otsailaren 18ra arte:

- **"TXIRRINDULARIA", Jose Zugasti eibartarrarena.** (Armagintzaren Museoa).

Otsailaren 29ra arte:

- **"EME, Estilo Ariketak Emakumeen aurkako indarkeria sinbolikoak", JOSUNE ARANGUREN ZATIKA eibartarraren erakusketa.** (Andretxea).

Eskualdeko Agenda

DEBA

1ean (BARIXAKUA) KONTZERTUA
20:00 / Kultur Elkartea
 Gari
5ean (MARTITZENA) UMOREA
22:00 / Kultur Elkartea
 "Erdaldun berrien kluba"
1ean (BARIXAKUA) KALE-ANTZERKIA
19:00 / Foruen plaza
 "Legea gu gara"

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 2an: 22:30
- 3an: 20:00

“Contadora de películas”

DRAMA



2023/Espainia/116'
Zuzendaria: Lone Scherfig
Aktoreak: Bérénice Bejo,
Antonio de la Torre, Daniel Brühl
60.eko hamarkada

2 ARETOA

- 2an: 19:45
- 3an: 20:00
- 4an: 19:30

“Teresa”

DRAMA



2023/Espainia/100'
Zuzendaria: Paula Ortiz
Aktoreak: Blanca Portillo, Asier
Etxeandia, Greta Fernandez
Biografikoa/Erlijjia

1 ARETOA

- 2an: 16:30
- 3an: 16:30
- 4an: 19:30

“Napoleón”

DRAMA



2023/AEB/147'
Zuzendaria: Ridley Scott
Aktoreak: Joaquin Phoenix,
Vanessa Kirby, Tahar Rahim
Biografikoa/XVIII. mendea

2 ARETOA

- 2an: 19:45, 22:30
- 3an: 17:00, 20:00 (Antzokia)
- 4an: 19:30 (Antzokia)

“Five Nights at Freddy’s”

ANIMAZIOA



2023/AEB/110'
Zuzendaria: Emma Tammi
**Fantastikoa/Panpinak
Bideojokoa**



ANTZOKIA

- 2an: 17:00 (2 Aretoa)
- 3an: 17:00

“Wish. Poder de los deseos”

ANIMAZIOA

2023/AEB/95'
Zuzendaria: Chris Buck
**Fantastikoa/Abenturak
Komedia musikala**



**Unax
Garcia Legaristi**

2023/11/25

ESKERRIK ASKO
une latz hauetan gurekin
egon zareten lagun eta
famiariako guztiol.

- ETXEKOAK -



FUNEUSKADI
Grupo Auzada

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO EREINATORIO
EUGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otxola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Kixilon, 1/h. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
-----------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **UNAX!** Atzo 6 urte bete zenuazen-eta. Gure bizitzako alaitasuna zara. Musu potolo bat aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, **JONE,** zure 10. urtebetetzian. Segi fiñ eta jator. Patxo potolua etxekuen partez.



Zorionak, **UXUE!!** Martitzenian zure lehen urtetxua bete zenuan-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **TXOMIN!** Bixar 5 urte egingo dozuz-eta!! Jarraitu beti bezain krak izaten. Musu haundi bat Pello eta Elixeren partez.



Zorionak, **MIKEL!!!!** Hillaren 4an 7 urtetxo beteko dozuz-eta. Ondo pasa famelixa eta lagunekin. Patxo haundi bat danon partez!



Zorionak, **CONTXA,** atzo 99 urte bete zenuazen-eta. Jarraitu osasun horrekin. Musu haundi bat Mirtharen partez.



Zorionak, **LUCIA!!** Zelako neska haundi egitten ari zaren. Bixar 12 urte, printzesa!! Askok maite zaittugu. Aitta, ama, Paula eta amama.



Zorionak, **NAHIA.** Patxo haundi haundi bat etxekuen partez!!



Zorionak, **ELENE!** Datorren barixakuan 12 urte egingo dozuz-eta. Amets askotarako! Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez!



Zorionak, **MALENI!** Bixar 6 urte beteko dozuz-eta. Segi holako alaixa izaten. Musu asko famelixa guztiaren eta, batez be, **JUNE**ren partez.

ek!

Zure publizitatea herriko aldizkarian

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus

LAIA, zure bihotzak konkistatu ditu gureak eta Euskal Herriko mendi-tontor berdeak. Betira arte, maittia!

- AITZIBER, ELENE ETA ANE -



Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Garaje itxia eta zabala alokagai Ipuruia inguruan. 652775746.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Garraiolaria eskaintzen da, furgonetarekin, errekaduak eta bestelakoak egiteko. 631935349.
- Neska eskaintzen da sukaldatu eta jakiak prestatzeko (eramateko janaria, pintxoak...) eta zainketak egiteko. 612223075.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 679912841.
- Neska eskaintzen da kamarrera jarduteko, biltegian lan egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 641196232.
- Mutila eskaintzen da garbiketarak egiteko, obretan lan egiteko eta kamarero edo banatzaille bezala. Fagor Ederlanen jardundakoa. 631035853.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburu eta jaiegunetan. Externa. 631425686.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. 627086917.

- Emakumea eskaintzen da enpresa batean egun osoko lana egiteko. 697586781.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioarekin). Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak arratsaldez zaintzeko (Geriatría tituluarekin). 652532589. Elvis.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Orduka. 605402030.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. 631229408.
- Neska eskaintzen da pegorak edo lokalak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. 620757528. Arrate.
- Erizain teknikari laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaindu edo paseatzera atera eta garbiketarak egiteko (etxeak, pegorak, bulegoak...). Orduka. 612460920.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 610067042.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Externa. 631159373.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskerak

- Ingelesa ikasten diharduena behar dugu 12 urteko ume bati klase partikularrak emateko etxean. 607926886.

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.



osasun gida

Medikuntza Estetikoak

ANE YESGA
CLÍNICA MEDICINA
ESTÉTICA

Mediku Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoak


Arragueta 2bis B, Entreplanta A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



Podologoak

**ELENA
AIZPUN
PODOLOGOA**

838200124
kolegiatu zerbaita



T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Ψ Oscar Mondragon Lili
GOMEZ ETA ARRATZALDEZ

Urkizu, 13 - behea
tel. 943206823 / 686859023

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Okulistak

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 20413

Plaza Berria 2, 2º. Tel.: 943 201 944
www.clinicarecalde.com



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodríguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)




PODOLOGOA

Maidor
Lopez
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.




943-206776

EIBARREN

Zuatzu Klinika da zure konfiantzazko klinika



**Ginekologia
eta Obstetrizia**



**Jaio aurreko
diagnostikoa**



**Laguntza
Bidezko Ugalketa**



**Bularreko
patologia**

3 Mediku
profesional zuri
arreta emateko

Eskatu zure hitzordua
Zuatzu Eibar
Urkizu Pas., 11 (1. solairua)
943 121 021